

«Teknikari batek ikusiko balu nola grabatzen dudan, sekulakoak botako lizkidake»

Ibilbide oparo bezain anitza du Keu Agirretxea musikariak.
Beste hamaika lan egin bitartean sortutako ideiak etxean bertan grabatu eta
Behe presioaren erdigunean disko akustikoan bildu berri ditu.

| LANDER ARRETxea |

Diskoa lehenengoz entzun eta pop-folk doinuak direla esan liteke. Baina bigarren entzunaldian, beste hainbat estilotatik edaten duzula ere igaritzen da. Zure ibilbideari erreparatuta, zaila da zu etiketatzea.

Benetako abestiak egitea izan dut asmoa. Kantu umil batzuk egin nahi izan ditut, transmitzeko gai direnak, estiloari gehiegi erreparatu gabe. Goxotasunez egin ditut. Egia da, sarritan, disko akustikoa dela entzun eta abesti astun edo goibelekin lotzen dugula. Ez nuen hori nahi, eta nolabaiteko oreka lortzen ahalegindu naiz.

Kolaborazioen ekarpena garrantzitsua izan da horretan?

Dudarik gabe. Nik abestiak defendatu ditzaket gitarra eta ahotsarekin, baina kolaborazioek beste ukitu bat ematen diete, eta beste musikarien ikuspuntua eta nortasuna erantsi diote diskoari. Koloreztatu egin dute.

Etxean eta zure kabuz grabatu dituzu abestiak. Horrek askatasun handiagoa ematen dizu lana nahieran moldatu ahal izateko?

Etxean grabatu dudana laugarren diskoa da. UEK, Fjord, Etsaiak edo Governors bezalako proiektuetan aritu naizenean esaterako, ezin nuen halakorik egin, baina proiektu akustiko honekin gai sentitzen naiz horretarako. Gainera, nahieran grabatzeko aukera ematen dizu horrek. Teknikari batek ikusiko balu nola grabatzen dudana, sekulakoak botako lizkidake agian, baina nik horrela egin nahi dut, soinuarekin esperimintatuz. Askotan, estudio batera joan eta ez zara ausartzen buruan duzuna es-

ten; edo proposatzen duzu eta aurpegi txarra jartzen dizute, eta asmo hori galdu egiten da. Alde horretatik, askatasuna nahi nuen. Bestalde, merkeagoa ere bada, eta gainera, nire bizitza pieza askoko puzzlea denez, ez nuen denborarik hilabetez estudioan aritzeko.

Gitarra, slide gitarra, ahotsa... Perkusioaz ere zu zeu arduratu zara.

Nire musika-tresna gitarra da. Abestu ere egiten dut, eta nire muga barruan, gero eta erosoago sentitzen naiz, gauza arrarorik egiten saiatu gabe. Baxua jotzen dut, edo jo dezaket

behintzat, eta berdin bateria ere. Perkusio aldetik ikusi nuen eritimoaz arduratu nintekeela, eta piano akorde batzuk ere sartu ditut neronek.

Eta nola eraman daiteke hori guztia zuzenekoetara?

2010ean hasitako laukotea aritzen gara: Iñaki Jaio baterian, Isusko Ramón saxoarekin, Mikel

Arakistain baxuan eta ni neu. Uste dut zuzenekoan abestiek irabazi egiten dutela, baliabide asko dituzten musikariak dira eta. Nik diskorako baterian egin dudana, asko hobetzen du Iñakik, adibidez; saxoa ere, ia abesti guztietan sartu dugu; Mikelek eta biok aldiz, hogeita bat urte daramatzagu batera hainbat proiektutan, eta oso ondo ulertzen dugu elkar.

Gaurko musikariak gaitasun tekniko handia bai, baina esateko ezer ez omen du hainbaten ustez. Zer da zure abestiek kontaktu nahi dutena?

Abestiak, hitza eta musikaren arteko fusioa dira, eta nik bien arteko oreka bilatu dut. Ez





LANDER ARRETXE

ERDIKO KAIERA

eta horrek ere oso ondo funtzionatu zuen. Baina, orokorrean, harritu egiten nau euskal talde interesgarriak entzun eta urtean bost kontzertu besterik ematen ez dituztela ikusteak. Aldiz, Betagarrik hasitako bide beretik doazen ehunka talde sortzen badira ere, plaza guztiak betetzen dituzte. Egia da gauza berriak proposatzen dituzten batzuk bidea egin dutela: Napoka Iria, Mursego edo Joseba Iratzokik adibidez. Merezi dute. Orokorrean, sorpresa asko eraman ditut.

Etsaiak edo Governors zaleak harritu egiten dira zu kontzertu akustikoak ematen ikusita?

Askotan esaten didate: “Nola aldatu duzun estiloa, ezta?”. Ez dakite 1997an Zain izeneko proiektu akustiko bat izan nuela eta hiru disko instrumental argitaratu ditudala. Pentsatzen

dute beti musika gogorra jotzen aritu naizela, eta bat-batean, gitarra akustiko bat erosi eta honekin hasi naizela, hego haizeak jota edo.

Urteak daramatzazu honetan, baina euskal musikari hasiberriak badu aurrera egiteko modurik?

Egoera sozial eta ekonomikoa aldatu egin da, baita antolatzeke modua ere. Lehen astero frontoietan ematen nituen kontzertuak. Orain arraroa da hori. Badaude kontzertuak ematen hasteko tokiak, baina jendeak ez du lehen bezala erantzuten. Talde ezezaguna ikustera ez gara joaten, oro har. Ez dakit ez ote garen Youtuben ikusitakoarekin konformatzen.

Sare sozialak direla eta, hasierako pauso horiek emateko modua aldatu da. Lehen kontzertu pila eskaini behar zenituen zure taldearen izena ahoz aho zabal zedin. Orain irudimen pixka batekin eta bideo batzuk eginda, ezagun egin zaitezke zuzeneko bakar bat ere eskaini gabe. ■



dut demostrazio tekniko bat egin nahi izan. Horregatik nahi izan ditut kolaborazioak hitzetan ere. Leire Bilbao, Aiert Goenaga eta Mikel Etxabururen hitzak irakurri eta zerbait pizten zait barruan. Musikarekin efektu hori pertsona gehiagorengana helaraztea da nire helburua. Horrekin konformatzen naiz.

Mikel Etxabururen hitzekin osatutako Zubia abestiaren, Ondarroako Herri Harresia ekarri nahi izan duzu gogora?


Horrela atara zaigu, ez da neurtutako hautua izan. Hilabete batzuk igaro dira jada, baina guk oso gertutik bizitu genuen, Urtza, Mikel eta hiruok lagun minak baikara. Ez duzu negar egitea erabakitzen, malkoak nahigabe ateratzen zaizkizu; bada, berdin gertatu zaigu guri abesti honekin. Egun horretan sentitu genuenaren ondorioa izan da.

Musika irakasle ere bazarenez, musika duzu ogibide.

Euskaraz abesten baduzu, ez da erraza horrekin bizitzeko adina ateratzea. Etsaiak taldean nintzenean, hamabi urtez, ez nuen besterik egiten. Baina beste egoera bat zen: kontzertu asko eskaintzen genituen, disko asko saldu... Gaur egun, eskertuko nuke zuzeneko gehiago izan eta musikari lanari denbora gehiago eskaini ahal izatea. Baina hala ere, ez dut uste irakasle lana utziko nukeenik. Nire diskoko kolaboratzaile gehienak eskolan ezagutu ditut eta gainera izugarri ikasten da eskolak ematen.

Proiektu ugartan aritu zara. Zure esperientziatik, zein da gurean arrakasta erdiesteko gakoa?
Nire ibilbidean, arrakasta handiena lortu duena Etsaiak izan da. Fjord egin genuen gero,

“Askotan, estudio batera joan eta ez zara ausartzen buruan duzuna esaten; edo proposatzen duzu eta aurpegi txarra jartzen dizute, eta asmo hori galdu egiten da. Alde horretatik, askatasuna nahi nuen”.



NIKKI HILL Basterorock Gauak
Abenduak 5, ostirala 22,30etan
Bastero Kulturgunean

